

PROGRAMA

zure
bizitza
erdigunean

Ahal Dugu ALSASUA
PODEMOS.

#ProgramaAltsasu2019

AHAL DUGU ALTSASUK bere burua herria uztera behartuta ikusiko ez duten biztanleen Altsasu bat nahi du, non ekonomia, teknologia eta politika pertsonen zerbitzura egongo diren; Altsasu berdinzale eta inklusibo bat; herri berde eta jasangarri bat, bere ingurumen-balioak eta ondare kultural eta historikoa errespetatuko dituen; pertsonekin bidezkoa eta solidarioa izango dena, ongi hornituta egongo diren gizarte-zerbitzuak, osasuna eta irakaskuntza izango dituen. Etika, gardentasuna eta publikoa denarekiko errespetua nagusi izango dituen Altsasu bat. Horrez gain, bere nortasunari eta Nafarroan duen paperari eutsiko dien eta haiek aldarrikatuko dituen Altsasu bat. Inor harekin jolastuko ez den Altsasu bat, justizia defendatzen jarraituko duena.

AHAL DUGU ALTSASURENTZAT programak herritarrekin konpromisoa izatea dakar eta, hori dela eta, garrantzitsua da jakitea nola jarriko den praktikan eta nola emango diren kontuak programaren betearazpenari dagokionez. Lehenengo urtean, ezarritako neurriei buruzko kontuak emango dira udalaren webgunean argitaratuko den txosten baten bidez. Horrez gain, lehenengo urtean, **Udal Jarri-duketa Programak** (UJP) prestatuko dugu. UJP beharrezkoa da ez erantzuteko soilik berehalako alderdiei, eta haren ildo nagusiak gizarte zibilarekin eta indar politiko eta sozialekin adostu beharko dira. Epe luzearako proiektu bat, gauden tokitik abiatuta eta oinak lurrean izanda, datozen legegintzaldietan, edonork gobernatuta ere, gure ametsetako Altsasu jasangarri, bidezko, justu, demokratiko eta etikoa baterantz aurrera egitea ahalbidetuko diguna, non xede nagusia bertako biztanleen ongizatea izango den.

Badakigu herri eredu hau ez dela urte batean eraikitzen, legegintzaldi batean ere ez. Alabaina, “biderik luzeena urrats batekin hasten da” eta lehenengo urrats hori aurreko legegintzaldian eman genuen, lana, zintzotasuna eta ideiak emanaz. Honakoan, zure botoarekin, eragin erabakigarria izatea espero dugu, Udaletik eta kaletik, Altsasu gobernatzen.

Gure programak guztion ongizatea lehenesten duten neurrien alde egiten du, hain zuzen, **zure bizitza, Altsasun bizi garen guztion bizitza, udal politikaren erdigunean** jartzen dutenak.

Indizea

ZURE BIZITZAREN ALDE: ZURE OINARRIZKO ESKUBIDEEN ALDE	6
1.- Gutxieneko hornigaiak bermatzea	7
2.- Elikagaiak bermatzea	7
3.- Langabeziaren kontra borrokatzeko plan bat prestatzea .	8
4.- Zahartze duin, aktibo, autonomo eta osasungarrirako eskubidea ziurtatzea	10
5.- Adin txikiko guztiei eskola-materiala eta eskola-jarduerak eskuratzerakoan berdintasuna ziurtatzea	11
ZURE BIZITZAREN ALDE: JASANGARRITASUNA	12
6.- Operadore energetiko berde bat sortzeko aukera aztertzea	14
7.- Hondakinen murrizketa sustatzea	14
8.- Alokairu soziala sustatzea	15

ALTSASUKO BIZI-KALITATEAREN ALDE	16
9.- Berdintasunaren alde egiten den lanarekin jarraitzea eta hura hobetzea.	17
10.- Haur eskola publikoa defendatzen jarraitzea	18
11.- Adin guztietan kirola egitea bultzatu eta zabaltzea	19
ALTSASU ERA DEMOKRATIKOAN ETA GARDENTASUNEZ GOBERNATZEAREN ALDE	21

ZURE BIZITZAREN ALDE: ZURE OINARRIZKO ESKUBIDEEN ALDE

Oinarrizko eskubideak bermatuko dituen Altsasu baten alde, herritar guztiak duintasunez bizi direla ziurtatuko duena.

Gutxieneko hornigaiak bermatzea

Egarririk, hotzik eta iluntasunik gabeko Altsasu bat lortzeko honakoa proposatzen dugu:

1. Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuekin lan egitea ur, argi eta gas hornidurak bermatzeko. Egarririk, hotzik eta iluntasunik gabeko Altsasu bat lortzeko.
2. Gobernuari eskatzea beharrezkoak diren mekanismoak sor ditzan inork ez dezan etxebizitzaren guztizko diru-sarreraren % 10 baino gehiago bideratu behar oinarrizko hornigaiak ordaintzera, eta hornidurak moztu litezkeen kasuetan, berehala neurriak har daitezzen mozketa egin ez dadin, eta hornidura enpresa hornitzaileen etekin altuen kontura ematen dela ziurtatzea, eta ez altxor publikoaren kontura.

Elikagaiak bermatzea

Pertsona guztiek eskubidea dute elikadura egoki bat izateko, irizpide partekatuekin eta era koordinatuan, udal ekimeneko jarduketak eta gizarte-entitateek burutzen dituzten jarduketak antolatuko dira. Horren kariatara, beharrezkoa iruditzen zaigu:

3. Ikastetxeekin batera aztertzea jantokirako dirulaguntzak indartu behar ote diren.
4. Helduentzako “lagunarteko bazkariak” ezartzeko aukera aztertzea.
5. Estigmatizatzen ez duten bide normalizatuak areagotzea elikagaiak banatzeko, elikagaien txekak adibidez, behar duten herritar guztientzat. Prestazio hori eskuratu ahal izateko, beharrezkoa izango da alde aurretik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek balorazioa egitea. Txekearen zenbatekoa familia-unitatearen araberakoa izango da, pertsona

bakarreko familia-unitateak barne, eta haren truke elikagaiak eskuratu ahal izango dira Altsasuko saltokietan.

Langabeziaren kontra borrokatzeko plan bat prestatzea

Nafarroako Estatistika Institutuaren arabera, 2018an Altsasun langabezia-tasa % 14,60koa zen, % 9,61 gizonen kasuan eta % 20,33 emakumeen kasuan. Jarduera ekonomikoa dibertsifikatu eta ekoizpen-eredu birbideratzea beharrezkoa da, bidezkoagoa izan dadin gizartearekin zein ingurumenarekin. Noski, hori ezin da egun batetik bestera egin, baina jarduketa-ildoak har daitezke joera hori geldiarazi eta leheneratzen saiatzeko. Jarduketa-ildo horietan, neurri positiboak al bait azkarren hartu beharko dira emakumezkoen langabezia ahalik eta gehien leuntzeko.

6. | Altsasuko merkataritza eta Merkatarien Elkartearen ekimenak babestu eta indartzea.
7. | Udalak bertako saltokietan erosketak egin ditzan lehenetsia.
8. | Bertako merkataritza-jarduerak sustatu eta bultzatzen laguntzea.
9. | Pertsonak artatu eta zaintzea, batez ere adin txikikoak, helduak eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak.
10. | Jarduera berri eta jasangarrien alde egitea.
11. | Udal jarduerak garatzea enplegua eta industria laguntzaileak ekarriko dituzten inbertsioak lortzeko. Tokiko erakundeak prozesu horiek erraz ditzake eta erraztu behar dituzte.

12. Tokiko ekonomia dinamizatzea: autonomoak, enpresa txiki eta ertainak eta ekonomia kooperatiboko bertako proiektuak lagunduz eta ekintzailtza babesteko udalaren saila areagotuz.
13. Tokiko mekanismo finantzario bat sortzeko aukera aztertzea. Udalak berak ekintzailtza-ekimenak finantzatu ahal izatea aztertzea.
14. Abeltzaintzako produktuak prozesatzeko kooperatiba bat sortzeko aukera aztertzea.
15. Dantzalekurentzako plan integral batean lan egitea. Aisialdirako eremu hau zaindu eta mantentzea. Autokarabanentzako aparkaleku bat sortzea.
16. Naturaren interpretazio zentroa, mendiko bizikletak alokatzeko eta bertako produktuak saltzeko zerbitzuarekin.
17. Bizikletan ibiltzeko bideak sortzea zikloturismoa garatzeko erakarpen tresna gisa.
18. Barruti mikologiko bati buruzko azterlana egitea eta sortzea; ordainpekoa, baina doakoa Altsasuko biztanleentzat.
19. Industrialdeak mantentzea eta haiek pixkanaka azpiegituarekin hornitzea.
20. Industrialdeetan industria-lurra prezio baxuan eskaintzea ekoizpen garbiko, energia berriztagarrietako eta IKT-etako enpresak ezartzeko.

- 21. | Industria-inbertsioak erakartzea gure toki-garapenaren eredia errespetatuko duten enpresa-jarduera berriak ezar daitezen herrian.
- 22. | Aurrekontu-sarrera xede duten neurriak sustatzea.
- 23. | Gipuzkoako Aldundiarekin lan egitea bultzatzea enpresen logistika-zentro bat sor dadin bultzatzeko.
- 24. | Udalaren zergak eta gastuak geroratu eta atzeratzea enpresa berrientzat eta/edo lehen aldiz ezartzen direnentzat gizalegezkoagoak diren enpleguak eta jasangarriagoak eta sozialagoak diren enpresak sortzen dituztenak.
- 25. | Hirigintzako tasak eta enpresa txikien, autonomoen eta enpresa sozialen oztopo administratiboak berrikusi eta murriztea.

Zahartze duin, aktibo, autonomo eta osasungarri-rako eskubidea ziurtatzea

Helduen zahartze aktiboa sustatzea programa espezifikoak abiaraziz.

- 26. | Helduentzako parke biosasungarria handitzea eta parke berri bat sortzea.
- 27. | Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak kudeatzen duen Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua indartu eta areagotzea.
- 28. | Jubilotekaren zerbitzuarekin jarraitzea eta hura babestea.
- 29. | Helduen artean kultura eta informaziorako sarbidea sustatzea prestakuntza espezifikoaren bidez (memoria, alfabetatze digitala, etab.).

Adin txikiko guztiei eskola-materiala eta eskola-jarduerak eskuratzerakoan berdintasuna ziurtatzea

Adin txikikoen artean dauden desparekotasun sozialak agerikoak dira hezkuntzaren arloan: eskolarako materiala eta liburuak eskuratzeko zailtasunak, irteerak eta eskolaz kanpoko jarduerak burutzeko zailtasunak. Desparekotasun horiek zuzentzeko horakoa proposatzen dugu:

- 30.** | Ikastetxeentzako dirulaguntzen egungo ildoak aldatzea ikastetxeen eta haien Guraso Elkarteen premietara egokitzeke.
- 31.** | Sozializazio-programak eta liburuak eta eskola-materiala berrerabiltzeko programak finantzatzea doakoak izan daitezen. Horrez gain, eskola-irteera kopuru minimo bat ziurtatzea arrazoizko prezio batean eskolatuta dauden 3 eta 16 urte bitarteko adin txikiko eta nerabe guzientzat.

ZURE BIZITZAREN ALDE: JASANGARRITASUNA

Ekaitzi, kontsumitu eta higitzeko modu jasangarriak bultzatuko dituen eta publikoa den hori, guztiona den hori, defendatuko duen Altsasu baten alde.

- 32. Udalaren kontratazioak justizia sozial eta ambientaleko irizpideak betetzera baldintzatzea.** Kontratuei buruzko lege berriari esker kontratazioan irizpide sozialak sartu dira. Gure ustez, irizpide horiek areagotu ditzakegu eta areagotu beharra ditugu.
- 33. Ongizate komunaren kontrakoak diren proiektuen aurka borrokatzen jarraitzea.** Proiektu horietako bi Abiadura Handiko Trena eta Itsaso-Castejón/Muru Artederreta Tentsio Altuko proiektuak dira. Biek inpaktu handia eragiten dute ingurumenean eta gizartean, eta ongizate komunitik oso urrun daude.
- 34. Garraio publikoa hobetzeko lan egitea.** Jendearen bizi-kalitatea eta hirietan eskaintzen diren zerbitzu eta jardueratara duten eskuragarri izatea, hein handi batean, garraio publikoaren zerbitzuaren mendekoak dira. Ildo horretan, garraioaren enpresa esleipendunekin lan egitea ordutegiek jendearen beharrak ase ditzaten. Garraio kolektiborako beste bide batzuk aztertzea (mikro-autobusak, partekatutako taxiak...).
- 35. Trafikoaren ordenamenduari buruzko azterlan bat egitea.** Gure kaleetan kotxeak eta oinezkoak elkarrekin bizi dira. Hori dela eta, elkarbizitza hori ahal den onena izatea beharrezkoa da. Horrela bada, aztertu beharko lirateke oinezkoentzat arriskutsuak diren tokietan semaforoak jartzeko aukera, oinezkoak babesteko sistemak...
- 36. Institutura, ikastolara eta Dantzalekura joango den bidegorri bat eraikitzea.**
- 37. Mendia zaindu eta mantentzea.** Mendia zaindu eta mantentzeko lanekin jarraitzea eta lurzati-tako bideak konpontzea. Dagokien udaleko langileek mendiaren us-tiapenaren enpresa esleipendunei jarraipena eta kontrola egitea eta aldian-aldian berrikustea.

Operadore energetiko berde bat sortzeko aukera aztertzea

Etxebizitzetako faktura energetikoa pixkanaka merkatzen joateko, pobrezia energetikoari aurre egiteko eta energia-ekoizle handienganako mendekotasuna murrizteko. Honakoa proposatzen dugu:

- 38. | Udalaren eraikinetan eguzki-plakak instalatzen jarraitzea.
- 39. | Eguzki-energiaren autokontsumo aktiboa (ur beroan eta elektrizitatean) eta bertako ekoizle txikien energia berriztagarriaren erosketa publikoa sustatzea.
- 40. | Sakanako Garapen Agentziari partikularrentzako eta enpresentzako aholkularitza-plan bat presta dezan eskatzea.
- 41. | Udalak zein hirugarrenek ekoiztako jatorri berriztagarriko elektrizitatearen merkaturatzaile bat sortzea, hartara administrazioak eta, gero, soberan dagoenean, hirugarrenek erabil dezaten.

Hondakinen murrizketa sustatzea

Murriztu, berrerabili eta birziklatzearen alde egiten dugu.

- 42. | Kontsumo arduratsuari buruzko neurriak sustatzea. Ikas dezagun nola erosi ez botatzeko. Kezkatzekoa da zenbat janari xahutzen den eta, ondorioz, zenbat janari bihurtzen den hondakin.
- 43. | Sakanako Mankomunitateak zaborra biltzeko zerbitzua hobetu dezan eta edukiontzi mota ezberdinak mantendu eta berritu ditzan lan egiten jarraitzea.

- 44.** | Sakanako Mankomunitateak sentsibilizazio programa gehiago egin ditzan eta bosgarren edukiontzia-erabilera susta dezan lan egitea.
- 45.** | Bertako merkatalguneekin batera, erosketetan itzultzeko ontzien sistemak ezartzea aztertzea.

Alokairu soziala sustatzea

Herritarrek ordain ditzaketan prezioak dituzten alokairuko etxebizitzak falta dira. Arrazoizko prezioak dituzten alokairuko etxebizitzak izatea ezinbestekoa da gazteek haien gurasoen etxea uzteko, helduek pisu egokituak izateko, baliabide mugatuak dituzten familiek eta pertsonak etxebizitza duinak eskuratzeko.

- 46.** | Hutsik dauden etxebizitzak, alokairuak dituen prezioen... mapaketa egitea. Ikuspegi errealista eta eguneratua izatea.
- 47.** | Udalarenak diren eta udalak kudeatzen dituen alokairu sozialeko pisuak eraikitzeke aukera aztertzea.
- 48.** | Nafarroako Gobernuari finantza-entitateekin negoziatzea eskatzea, Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Sozialen Funtsera lagatako etxebizitzak kopurua areagotu dezaten.
- 49.** | Nafarroako Gobernuak presionatzea Etxebizitza Sozialen Funtsera lagatako etxebizitzak udalek kudea ditzaten, lagatze eta/edo kolaborazioko hitzarmen baten bidez.

ALTSASUKO BIZI-KALITATEAREN ALDE

Altsasu humanoago baten alde, bertako herritarrak zainduko dituen adina, generoa, jatorria eta gaitasuna ezein dela ere, eta, gainera, haren ingurunea zainduko duena.

Berdintasunaren alde egiten den lanarekin jarraitzea eta hura hobetzea.

- 50.** | Berdintasuneko politikak garatzen direla ziurtatzea.
- 51.** | Berdintasunaren aldeko Tokiko Entitateen Sarea sustatzen jarraitzea.
- 52.** | Udalaren aurrekontuaren % 1,4 berdintasuna sustatzera bideratzen dela ziurtatzea.
- 53.** | Erabakiak hartzeaz arduratzen diren langile politikoek berdintasunaren arloan duten prestakuntza espezializatuarekin jarraitzea eta hura areagotzea.
- 54.** | Emakumeen aurkako indarkeriaren eta LGTBI+fobiaren kontra borrokatzea.
- 55.** | Festetan genero-indarkeriaren aurrean jokatzeko protokoloa hedatzea urteko gainerako egun eta ospakizunetara.
- 56.** | Hitzarmen Instituzional bat sustatu eta onestea jarduketa politikoa eraiki eta garatzeko, zainketak balioetsiko dituen etika berri batetik abiatuta.
- 57.** | Udalaren jarduketetan genero ikuspegia sartzen jarraitzea.
- 58.** | Emakumeen artean asoziazionismoa sustatzen jarraitzea.
- 59.** | Emakumeak ahalduntzeko ezartzen diren neurriak babes-tu eta laguntzea.

- 60.** | Zorionez, langabezia murrizten ari da. Alabaina, ez da berdin jaisten ari emakumeen eta gizonen artean. Datu hori aztertzea eta emakumeentzako enplegarritasun neurriak hartzea beharrezkoa da.
- 61.** | **Osasun-laguntzako zerbitzuen kalitatearen alde borrokatzea.** Osasuneko kompetentziak udalarenak ez diren arren, Altsasuko osasun-etxean langileak falta direla salatu dezakegu eta hala egin beharra dugu Osasunbidean.

Haur eskola publikoa defendatzen jarraitzea

Kalitateko heziketak eskubide bat izan behar du lehen haurtzaroen. Horretarako:

- 62.** | Haur eskolaren premiei eta proposamenei erantzutea.
- 63.** | Nafarroako Gobernuari indarrean dauden errenta-irizpi-deak berrikus ditzan eta baliabide gutxien dituzten familientzat irisgarriak direla ziurta dezan eskatzea.
- 64.** | Haur Hezkuntzako 0-3 tartearen hezkuntza-etapa gisa aitordadin, hezkuntza-sisteman erabat integratuta egon dadin, eta, hortaz, doakoa izan dadin lan egiten jarraitzea.
- 65.** | **Gazteen parte-hartzea bultzatzea** eta bizitza sozial, politiko, ekonomiko eta kulturean aktiboak izan daitezen Gazteriaren Kontseilu bat sortzea.
- 66.** | **Kultura guztion ondasun gisa sustatzea.** Altsasuk aberastasun kultural anitza du, zaindu, mantendu eta areagotu beharra den ehundura asoziatibo eta kulturala. Horretarako, beharrezkoa da aurrekontu-zuzkidura handiagoa izatea, hazkunde kulturala pertsona guztien eskubide gisa

hartuko duena. Eta, noski, kaleko kulturarentzako zuzkidura.

- 67. Aire zabalean mundu guztiarentzako aisialdia, jolasa eta kirola sustatzea.** Xede horrekin defendatzen dugu espazio publikoetan guztientzako kirol-jarduerak sustatzea, prestakuntza teknikoa duten langileek dinamizatuta.

Adin guztietan kirola egitea bultzatu eta zabaltzea

Kirol-zerbitzuak egiten duen lanarekin jarraitzeaz gain, proposatzen dugu:

- 68.** Kirola-osasuna programak aplikatzen jarraitzea. Ibilbide osasungarriak Altsasun eta haren inguruneetan, bidean atsedean hartzeko bankuak izango dituztenak eta mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzat egokituta egongo direnak.
- 69.** Kirol-azpiegituren premiei buruzko azterlan bat egitea eta haiek asetzeko lan egitea. Espazioen gabeziak ezin du kirola egitea ez kirolaren hazkundea oztopatu.
- 70.** Udalaren kirol-zerbitzuen koordinazioa hobetzea funtsezkoa da. Udalak Atabo zuzenean kudeatzen jarrai dezan lan egiten jarraituko dugu.
- 71.** Kirol-jardueren kostua benetan aztertzea kuotak ezartzeko. Gure iritziz, kostua areagotzeak ez du KPI-ren areagotzearen mende egon behar. Benetakoa zein den jakin dezagun gero prezio horiek egokitzeko
- 72. Aniztasun funtzionala duten pertsonen irisgarritasuna ziurtatzea.** Eraikin eta kaleetako oztopo arkitektonikoak pixkanaka kendu daitezzen lan egiten jarraitzea pertsona

- guztien mugikortasunerako eskubidearen oinarritzko alderdi bat da.
- 73. | Iortia plazan eremu estali bat eraiki dadin sustatzea.** Herriar ugari sentitzen duten behar bat da jolasak, merkataritza bultzatzeko jarduerak, azokak, kultura-ekitaldiak eta abar estalitako eremu batean gauzatzeko.
- 74. | Pertsonak hiri-garapenaren erdigunean kokatzea.** Altsasuk hirigintzan jendea erdigunean jarriko duen herri bat izan behar du: oinezkoentzako espazio handiagoa eta zerbitzuz hornitutako topagune gehiago (haurrentzako parke estaliak, iturriak, paperontziak, bankuak...).
- 75. | Eremu berdeak gehiago zaintzea eta kaleetan jardinerak jartzea.**
- 76. | Pipikan bat sortzeko aukera aztertzea.**
- 77. | Euskararen normalizazioan lan egiten jarraitzea bizikidetzarako eta inklusiorako eragile gisa.**
- 78. | Altsasun gizarte-larrialdietarako etxebizitza bat ezartzea.**

ALTSASU ERA DEMOKRATIKOAN ETA GARDENTASUNEZ GOBERNATZEAREN ALDE

Kontu-emateak eta herritarren parte-hartzeak eraikiko dugun Altsasu nahi dugun Altsasu dela ziurtatuko duten udal baten alde.

- 79. Udal demokraziaren eredu berri baterantz abiatzea.** Herritarren parte-hartzea sustatuko duen eta aurrez-aurre parte-hartzeko zein parte-hartze digitalerako mekanismo zuzenak sortuko dituen eredu bat izatea funtsezkoa da.
- 80. Elkarrekin kudeatzeko modu berriak ezartzea.** Tokiko politikak egitea gizarte-eragileak, entitateak eta kolektiboak oinarri hartuta diseinatzerakoan, erabakiak hartzerakoan eta abiarazterakoan.
- 81. Udala eta herritarrak zuzenean komunikatzeko zerbitzu bat martxan jartzea.** Mugikorrentzako eta webguneentzako doako aplikazioen bidez komunikatzeko sistema bat eskaintzea, ahalbidetuko duena gorabeherak edo hiri-ekipamenduko kalteak jakinaraztea, eta udaleko zerbitzuek haren tratamenduaren jarraipena egitea. Halaber, jakinarazpen interesgarriak jasotzeko bitarteko bat izango da: alertak, kale-mozketak, ur-eteteak, udalaren bandoak edo askotariko jardueri buruzko informazioa.
- 82. Herritarrek udalaren aurrekontuaren zati bat esleitzen lan egiten jarraitzea.** Udalaren aurrekontuaren zati minimo bat jendeak esleitzen duela ziurtatzea, herritarrek beraiek aurkezten dituzten proposamenen bidez eta prozesu parte-hartzailean sortzen diren proiektuak lehenesten direla errespetatuz.
- 83. Inpaktu handiko inbertsioei buruzko eztabaida publiko ziurtatzea.** Gizartean, aurrekontuetan eta ingurunean inpaktu handia duten inbertsioak herritarrekin eztabaidatu behar dira.
- 84. Kontuak emateko sistema bat abian jartzea.** “Udalak Erantzuten Du” sistema bat sortzea, alkatetzak eta zinegotziek herritarrek egiten dituzten galdera batzuk erantzuten dituztela ziurtatzeko.

zure
bizitza
erdigunean
Altsasu
ZU zarelako

Ahal Dugu ALSASUA
PODEMOS.

podemosaltsasu@gmail.com

[@PodemosAltsasu](https://www.instagram.com/PodemosAltsasu)

www.facebook.com/podemosaltsasu